

Izenburuak itzultzerakoan gertatzen diren aldaketa eta bitxikeriak

Patxi Zubizarretak eman zion hasiera «Gure gaztetxoak itzultzaile handiak» saioari, eta beste hizkuntza batzuetan argitaratu diren bere liburuen izenburuak itzultzerakoan gertatutako aldaketa eta bitxikeriak aipatu zituen, itzultzerakoan kontuan hartu beharreko zenbait elementuri erreparatzeko.

Usoa, hegan etorritako neskoa liburuko protagonista, esaterako, *Paloma* bilakatu zen hasieran gaztelaniaz, baina gero, norberarenean ohikoak ez diren izenetara gero eta ohituago gaudela oharturik, gaztelaniaz ere *Usoa* deitzea erabaki zuten, eta halaxe da eslovenieraz ere.

Hizkuntza batetik besterako joan-etorrian gertatzen diren galerak eta irabaziak ere aipatu zituen Zubizarretak. *Magalik badaki* izenburuak duen soinu errepika, esaterako, ezin izan da jaso gaztelaniazko bertsioan –*Magali por fin lo sabe*–, baina kontrakoa gertatu da *Bakarrik eta Buztangaberekin*, euskaraz ez zuen musika hartu baitu gaztelaniaz *Sola y Sincola* bilakatzean.

Itzulpenak sor ditzakeen bestelako loturak ere ekarri zituen gogora, eta hala, *Biolin bat Maribeltxarentzat* liburua erdaratzerakoan, protagonistak ez zuen *Maria la Negra* edo antzeko izenik hartu, ez bada *Maribelcha*, Pio Barojak idatzitako ipuin hura bezala.

Amaitzeko, Perrault-en *Mari Errauskin* edo *Errauskine* ipuineko zapaten pasadizo bat baliatu zuen gaur eguneko itzulpengintzaren joera aipatzeko. Nonbait, Mari Errauskinek zeramatzan zapatak larruzkoak omen ziren, larru mota bat baita frantsesez *vair*; baina, belarrira oso antzekoa den *verre* (kristala) bilakatu omen zen, eta handik aurrerako bertsio guztietan hala gorde da. Bada, gaur egun, itzulpenak ere kristalezkoak direla azaldu zuen Zubizarretak, jatorrizkoa garden ikusten duten testuak, eta garrantzitsua da hori, askotan itzulpena baita jatorrizkoa ezagutzeko dugun modu bakarra. Esaterako, *Mila gau eta bat gehiago* ipuin bildumako Aladinen kontakizuna ikus-entzunezkora pasatzean Disney etxeoak jatorrizkotik hurbilago ibili izan balira, bestelako oihartzunak ekarriko lizkiguke Jasmin printzesaren pertsonaiak, Badrulbudur baitzen haren jatorrizko izena.

Donostia, 2013ko urtarrilaren 29a